

# Prest!




BERBETAN: **IVAN ALLUE HERMOSILLA** MULTINSTRUMENTISTA

ERREPORTAJEA: **UR ARTEA TALDEAREN AGURRA** BARKUA: **TRETATXU, BANDOLERO SOZIALA**

184-185-186-187-188-189



## Gure babesleak



# Prest!

## izan

# Harpidetu

urtean 25€





Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

HONA:  
Prest! aldizkaria  
Ramon y Cajal 42  
Deustua 48014  
94 447 10 42

EDO HONA:  
bi@bokoaldizkariak@gmail.com



# aurkibidea

	Arantza Etxebarria - Gaizka Suarez 	<b>Iritzia</b>	<b>4</b>
	Lirio Flores 	<b>Gurera etorria</b>	<b>5</b>
<b>e</b>	<b>erreportajea</b> Ur Artea taldearen agurra  <i>30 urte betetzearekin batera, agur esateko unea heldu da Deustuko Erriberako Ur Artea aisialdi taldearentzat. Ilusioz, erronkaz eta elkarlanez betetako urteak ospatuko dituzte maiatzaren 19an.</i>		<b>6</b>
	Intxixu ikastola 	<b>Eskola</b>	<b>10</b>
	Deustuko lehenengo batzokiak 	<b>Behin batean</b>	<b>12</b>
	Euskal Herriatik mugak zabalduz 	<b>Artikulua</b>	<b>14</b>
<b>b</b>	<b>berbetan</b> IVAN ALLUE HERMOSILLArekin  <i>Musika jotzea eta musikarekin ondo pasatzea gustuko du San Ignazioko Ivan Alluek. Kontu kontari, bere ibilbidearen eta esku artean duen proiektuaren berri eman digu.</i>		<b>16</b>
	70eko hamarkadan Deustuko Kanala, 1971 	<b>Irudiak berbetan</b>	<b>21</b>
			<b>24</b>
	<b>FOLKLOREA</b> Erraldoi berri pareta		
	<b>SAREKADA</b> Klik eta klik		
	<b>PINTXODROMOA</b> El Viejo Roble		
	<b>KULTUR TXOTX</b> Janire Soldevilla eta Gerizeti Zubiaurre		

**barkua  
bete  
herba**

**Prest!**

**Argitaratzailea:**  
BLB Komunikazioa Koop. Elk.  
Tel: 94 447 10 42  
Ramon y Cajal 42  
Deustua 48014  
bilbokoaldizkariak@gmail.com  
uriola.eus  
@uriolaeus  
facebook.com/uriolapuntueus

**Zuzendaria:** Lur Mallea  
**Erredakzioa:** Olatz Arregi, Bea Medrano, Nerea Olaziregi, Ane Rotaetxe, Amaia Ruesgas, Borja Sarrionandia-Ibarra, Ane Zabala, Hektor Ortega, Jaione Ayestaran, Adriano de Mata, Nuria Arroyo, Amaia Mintegi, Itziar Fernandez  
**Kolaboratzaileak:** Gaizka Suarez, Arantza Etxebarria, Josu Oleaga, Janire Soldevilla, Elorri Bertso-Eskola, Patxi Gaztelumendi, Txema Luzuriaga, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekola BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola  
**Argazkiak:** Javi Garcia - Iñigo Azkona  
**Publizitatea:** Ninbe Moreno  
**Diseinua:** BOST  
**Maketazioa:** Amaia Gil Basterretxea  
**Inprimategia:** Antza  
**Ale kopurua:** 2.800  
**Lege Gordailua:** BI-571-01  
**ISSN:** 1577 - 9017



## Udaberriko solstizioa

Norberaren herriko jaiak beti daukate esanahi bereziren bat. Edozein zatarreria izan arren, munduko onenak bailiran kontatzen dizkiogu gure ingurukoei. Ongi oroitzen dut Deustuko Jaiak hasi baino lehenagoko egunetan zelako pasioarekin esaten nien nire klasekideei jaiak hastear zeudela eta itzelak behar zutela izan.

Argi utzi beharra daukat orduan nituen aurreikuspenak ere aise gaingitu zirela. Zalantzarik gabe aurtengoak dira bizi izan ditudan Deustuko Jaiak onenak. Eguraldiak jai herrikoiak oso gustuko ez dituen Udaleko kideren batek aukeratua zirudien arren, ez zuen haria eten. Zapi gorria jantzi eta hor nintzen egunero suertatzen zenarekin: Matxingorriekin herri bazkarietako platerak in extremis aurkezten, koadrilakoekin *sonbrerü* ederra jantzita poteatzen, Front-Offean Deustuko musika taldeekin dantza bizian...

Hala ere, egun guztietan onena azken igandea izan zen. Aurreko gaueko ordu aldaketaren ondorioz egun argiz bildu ginen Deustuko gazte (eta ez hain gazte) ugari Tomatearen erreketarako, oraingoan euriak atsedean bat eman zuen. Tomatea kiskaltzen zen bitartean guk kantu eta dantzaz eman genion agurra. Suak behera egin zuenean hura salto egitera ausartu zenik ere egun zen. Iluntze magikoa oso!

Deustuko Jai Batzordeak antolatutako neguko eta udako solstizioek sona handia dute gurean. Bada, hemendik aurrera deustuarrok errito berria sortu dugu: udaberriko solstizioa, jaien amaieran neguari agur esan eta udaberriari harrera egiteko egun handia. Eskerrik asko guztioi egun hori hain ederra egiteagatik, eskerrik asko norbere herriko jaiak munduko onenak izan daitezkeela erakusteagatik.



Arantza Etxebarria Iturrate  
arratiarra Deustun



## Erantzunik ez

Egunero-egunero zenbat-gura trabari aurre egin behar deutsegu han-hor-hemen. Beharlekuan dala, ikasketetan dala... Arazoei urtenbidea topetan ahalegintzen gara, eta egoera baten aurrean konponbide bat edo bestea aukeratu behar izaten dogu. Proiektuak gestionauaz bizi gara egunero, ez bakarrik etxetik kanpo, baita etxe barruan be.

Telebisino, irrati eta barripaperetan hamaikatxo problema eta barri ikusi eta entzuten doguz, eta nahikoa behar daukagu horreek ulertzeko ahaleginak egiten. Eta kritikoak izaten. Eta pentsatzen dogun horren erudura koherenteak izaten.

Asteburuetan, etxean gosaltzen ari garela, behin eta birritan, kafea okerreko zulotik joaten jat. Mutu geratzen naiz, ez dot erantzunik topetan. Bardin da ez-dakit-nongo uni-

bersidateko titulua badaukazu, edo gaur egun hain modan dagoan kudeaketa aurreratuan aditua bazara. Kontua da kafeak bihotzerrea emoten dauala askotan.

Egunkarian, hondartza baten balea bat hilda ikusi, eta alabeak galdetzen deust: "Zergaitik botaten doguz plastikoak itsasora, ama?". Telebisinoan herrialde bat bonben artean birrinduta ikusi, eta alabeak galdetzen deust: "Zergaitik jaurtiten dabez bonbak, ama?". Eta, euria bota ahalean dala, leihotik begiratuta, alabeak galdetzen deust: "Zergaitik egin leikie hegaz txoriek sasoi honegaz eta maitagarriek ez, ama?".

Dardarka hasten naiz 'zergaitik' berbea entzuten dodan bakotxean. Baina, zergaitik negar egin? Zeruan izarrak dagoz, itsaso aldetik.







## Lirio Flores

**Jatorria:** Tegucigalpa, Honduras

**Bizitokia:** Deusto

**Lanbidea:** Irakaslea Deustuko Unibertsitatean



# “Hiri hau prestatuta dago desgaitasuna duten pertsonentzat”

### Zergatik erabaki zenuen Deustura etortzea?

Hondurasen beka bat eskuratu nuen Deustuko Unibertsitatean Hezkuntza beharrian berezietan master bat egiteko.

### Abegikorrek gara kanpotik datorrenarekin?

Euskaldunen estereotipoak ezagutu gabe heldu ginen, kutsatu gabe nolabait. Guk geuk osatu dugu iritzia gure esperientziatik abiatuta. Lehen unean etxeko jabeekin izan genuen harremana, bikote zoragarriarekin. Oso ondo hartu gintuzten. Urdaiazpikoa ez dela frijitu behar eta pipak zuritu behar direla azaldu ziguten. Euren seme-alabekoa baten amabitxia naiz ni. Pentsa, zelako harremana izan dugun. Oso abegikorrek izan dira.

### Bi seme-alabaren ama zara. Zelako harremanak egin dituzu eskolaren jira-biran?

Jose Carlok desgaitasun intelektuala du, autismo zantzu batzuekin. Berarentzat eskola hautatzea oso zaila izan zen. Eskola kontzertatu batera jo genuen, baina ez zuen bitarteko nahikoa. Orduan, Deusto LHIn eskolaratu genuen bai bera bai Lia, eta gerta ziezagukeen gauzarik onena izan da. Gainerako umeekin ikasgelan egon da Jose Carlo. Lan handia egin dute eskolako arduradunek. Lagun handiak egin dituzte nire seme-alabek.

### Arrazismoa sentitu duzu?

Zenbait unetan baztertua sentitu naiz jolas parkean eta dendetan, edota *sudaca* edo *panchito* bezalako hitzak erabiltzen direnean. Baita alperrek garelara eta diru-laguntzen bila etorri garelara entzuten dudanean. Ezagutzen gaituztenok badakite zein den gure ibilbidea. Ikasketen ondoren lan kontratua etorri zela, eta gero Doktoretza ikasketak. Baina ezagutzen ez gaituztenok, gure ezaugarri fisikoak baino ez dituzte ikusten. Zenbaitek zerbitzatzerako etorri garelara pentsatzen dute.

### Zer dakigu euskaldunok hondurastarrei buruz?

Ni ez naiz hegoamerikarra, Erdialdeko Amerikakoa baizik, Honduras istmo batean kokatuta baitago. Desberdintasuna azaltzen jardun ohi naiz. Hona iristen diren Hondurasko berriak segurtasun faltarekin, indarkeriarekin eta ezegonkortasun politikoarekin lotutakoak dira. Guzti hori egon badago, baina beste leku askotan bezala, eta esaten ez diren beste gauza asko ere badaude. Nik ikasle eta lagunei Hondurasko txokolate, kafe eta arrezifeei buruz hitz egiten diet.

### Zer duzu faltan?

Familiarekin ematen duzun denbora, hemen ez baitugu. Gure seme-alabek aukera izango dute lagunartea osatzeko, baina guk dagoeneko

ez. Lagun berriei bizi zera zeri kontatu behar diezu, eta nekagarria da zure bizi zera berri ere zabal-tzea; gainera, pertsona horrek agian ez du izango zure bizitzaren berri entzuteko denbora nahikoa. Janaria ere faltan dute. Asteburutan Hondurasko jatekoa prestatzen dute seme-alabek euren sustraiak gal ez ditzaten.

### Bertako zer duzu gustuko?

Klima tropikalekoa naizen arren, eguraldi euritsu eta grisarekin gozatzen dut. Bilboren usaina ere gustuko dut, lur busti usaina du. Hiria prestatuta dago desgaitasuna duten pertsonentzat. Hiria irisgarria da hau, eta gustuko dut.

### Hondurasera itzuli zara?

Urtero itzultzen ahalegintzen naiz. Iaz familia osoa joan ginen, baina oso garestia da, eta etxean nik bakarrik egiten dut lan; rola aldatu ditugu senarrak eta biok. Unibertsitateak karrera akademikoa egiteko aukera eskaintzeak ziurtasun ekonomikoa ematen digu, eta horri esker beharrian asko bermatuta ditugu. Egoera hau gure herrian ere izan genezakeen modu batera edo bestera. Baina hemen geratzea erabaki dugu Jose Carlos gure semearen desgaitasunagatik eta Eusko Jaurlaritzak eta hezkuntzako erakundeek bere alde egin duten lanagatik. Horrek hemen betirako mantenduko gaituela uste dut.

Testua eta argazkia  
Prest!



## ERRIBERAKO UMEAK ELKARTU DITUEN TALDEA

*30 urte betetzearekin batera, agur esateko unea heldu da Deustuko Erriberako Ur Artea aisialdi taldearentzat. Ilusioz, erronkaz eta elkarlanean betetako urteak ospatuko dituzte maiatzaren 19an, ume eta begirale izandakoei, gurasoei eta auzoari zuzendutako agur-jaian. Cristina, Jon eta Ikerrekin bildu gara taldearen bilakaerari buruz hitz egiteko.*

**Testua:** Laura Freijo - **Argazkiak:** Ur Artea

Ur Artea 1988an sortu zen “auzoaren bizitza soziala dinamizatzeko asmoz”, azaldu digu lehen urteetan hezitzaile gisa ibilitako Cristinak. Halere, “berehala umeen aisialdira bideratu zen”, eta “gizarte-hezkuntza bultzatu nahi zuen Bilboko Udaleko proiektu batekin lotu zen”. Eskaintza ludikoaz eta hezkuntza izaera zuten ekintzez haratago, eskola laguntzarako tailerrak eta prozesu pertsonalerako lanketak egiten hasi ziren ondorioz. Urte horietan, ume asko zeudenez, asteko egun guztietan egiten ziren ekintzak, adinaran arabera astelehenetik ostiralera eta ume

guztientzat asteburuetan. Begirale guztiak boluntarioak ziren eta erdiak psikologo edo hezitzaileak. “Auzoari bizitza ematen ziona zen”, dio Cristinak, “elkargunea”. “Ekin-tzaren bat antolatuta ez bazegoen ere, jolasak hartu ahal genituen, eta asteburuetan bideoteka eta ludoteka zegoen”, gogoratu du ume eta ostean begirale izandako Jonek. “Ume asko biltzen zituen proiektua zen”, “uneoro zabalik zegoena” kontatu dute.

### **Bilakaera**

“Haur eta begirale kopuru aldetik momen-





tu txar bat izan genuen, eta hor estrategia birplanteatu genuen; ekintzak asteburuetan bakarrik egiten hasi ginen”, azaldu digu garai horretan begirale izandako Ikerrek. Urte horietan, “Ur Artea zabaldu zen, gurasoen, familien eta auzokideen partehartzea bultzatuz”, eta ondorioz proiektua hedatzen hasi eta “jende gehiago hurbildu zen”. “40 ume eta sei-zazpi begirale ginen eta era askotako ekintzat burutzen genituen”, dio Ikerrek, “hala nola, inauteriak eta jaiak ospatu, udalekuak, mendi irteerak, asteburupasak... nolabait, auzoari bizitza ematen ziotenak”.

Erronka berriak ere jarri zizkieten taldeari, adibidez, “euskara hutsean funtzionatzea”, nahiz eta helburua hasierako berdina izan. Ikerren esanetan, “Erriberako errealitate sozio-ekonomikoa aldatzeak Ur Artea eraldatu zuen, baina idearioa eta helburua berdinak ziren; umeekin aritzea eta hezkuntza era ez-formalean gauzatzea”.

Unerik berezienak oroitu dituzte gero, eta ados daude hurrak “hainbeste urteren os-

tean bat aukeratzea ezinezkoa da”. “Hasierako momentua oso polita izan zen, zerotik proiektua eraikitzen hasi ginenean, auzoak zer behar zuen, zer egin nahi genuen hausnartzen eta erabakitzen”, dio Cristinak. “Horrek batu gintuen, auzotik eta auzoarentzat ume eta gazteentzako espazioa sortu baigenuen”, gehitu du Ikerrek. 1993an antolatu zituzten lehen udalekuak “oso bereziak izan ziren”, aipatu dute, “lehen aldia baitzen Erriberako 40 haur eta gazte kanpora zihozazela 10-15 egun etxetik kanpo pasatzera”. “Dena den ekintza ugari egin ditugu”, eta “denak izan dira bereziak”, aitortu dute.

### Agur-jaia

30. urteurrena ospatuko dute maiatzaren 19an, eta horrekin batera proiektuaren agur-jaia. Lehen urteko inaugurazio jaietan bezala, “piraten abordaia izango da tematika”.

“Lehen Erriberan elkartzeko espazio bat zen Ur Artea, oso garrantzitsua, hori baino ez zegoelako. Gaur egun, mila gauza daude; gizarteak aldatu da”, azaldu digu Jonek. Azken urteetan “dinamika gutxiago eta ekintza

**“Lehen aldia zen Erriberako 40 haur eta gazte kanpora zihozazela”**









**“Ume eta begiraleen kopurua izan da taldea desagertzeko arrazoi nagusienetako bat”**

gutxiago egon dira”, eta “Ur Artea hiltzen joan da”. Gizartearen beharriaren aldaketaz gain, ume eta begiraleen kopurua izan da urte hauetan taldea desagertzeko arrazoi nagusienetako bat, “taldea auzoko jendearekin hornitzen delako, eta begirale faltak, hein handi batean, amaiera hori suposatzen duelako”. “Aukera asko sortu dira”, nabarmendu du Jonek, “eta lehen hau bakarrik geneukan”, gehitu du.

Horrenbestez, “proiektua airean ez geratzeko eta 30 urtez egindako lanaz ez ahazteko” egun osoko egitaraua prestatu dute maiatzaren 19an, ume eta begirale izandakoen zatz, gurasoentzat eta auzoarentzat “jolasak, herri-bazkaria, gala...” izango dituen eguna. “Emozio handiz antolatzen ari garen eguna da”, dio Ikerrek. “Ur Arteak auzo bezala

batu gaituelako, taldeari esker denok elkar ezagutzen dugulako, eta gaur egun harreman estua dugulako”, gehitu du Jonek.

Etorkizunari buruz ere mintzatu gara, eta baikor daude hirurak: “Hezkuntza ez-formaleko proiektu bat sortzeko beharra auzo eta herri guztietan dagoelako eta umeen belaunaldi berri bat dagoelako Erriberan”. Beraz, ez dute baztertu proiektua etorkizunean “beste era batean” birsortzeko aukera, “auzoa oso bizirik dagoelako momentu honetan”. Halere, garrantzizkotzat jotzen dute “gaur egungo egoera kontuan hartzea” eta “beharrizan berri horiek identifikatzea”.

Ondo pasatzeko nahia, gogoia eta ilusioa bidelagun izan dituzte 30 urte hauetan, eta auskalo zer datorren. Hurrengora arte Ur Artea!

www.renault.es / 902 333 500



## RENAULT BILBO BERRI

**IBILGAILU BERRI ETA BIGARREN ESKUKOEN SALMENTA  
MANTENTZE ZERBITZU AZKARRA • MEKANIKA • KARROZERIA**



**BILBO BERRI** JON ARROSPIDE, 20. TEL. 94 448 39 00. DEUSTU. [www.bilboberri.com](http://www.bilboberri.com)

RENAULT presentatzen du **ELF**



# GALTZERDI DESPAREJATUAK

*Joan den martxoaren 20an, sare sozialen bitartez Down sindromearen aldeko ekintza txikia iritsi zitzaigun ikastolara. Ez geneukan denbora askorik ezer antolatzeko. Hala ere, saiatu eta lortu egin genuen.*

Hurrengo egunean, hilak 21ean, une batez, momentu berezia bizi izan zen ikastolako Lehen Hezkuntzako gela guztietan. Goizean zehar, Alex eta Cristina gelaz gela hurbildu ziren konprobatzera norik gogoratu zuen, bezperan esandako moduan, galtzerdi desparejatuak ekartzen. Ikasle gehienek gogoratu ziren, baita irakasle batzuk ere! Argazkiak atera zituzten eta geroago guztiok ikusi dugun bideoa sortu egin zen, egun honetako ekimen polit hau gogoratzeko.

Antza denez, deialdia Down sindromedun Chloe izeneko neskatila eskoziar batek egin zuen haien inklusioa aldarrikatzeko. Egia da berezitasun batzuk dituztela, besteak beste:

- Garapen motrizean arazoak
- Koordinazioan eta mugimenduetan zailtasunak
- Atentzioa mantentzerako orduan zailtasunak

- Entzumen urritasuna zenbait kasutan
- Hizkuntzaren garapenean atzerapena
- Memorizaziorako zailtasunak
- Prozesu kognitiboak gauzatzeko zailtasunak
- Irudiak, soinuak baino hobeto prozesatzeko gaitasuna

Beharbada beste batzuei baino gehiago kostatu ahal zaie gauzak egitea, baina autentikoak dira. Azken finean, pertsonak dira, eta ez daude askok uste duten bezain mugaturik. Agian denbora edo laguntza gehiago behar dute, baina gai dira aurrera egiteko eta proposatzen dutena aurrera eramateko.

Ziur gaude gure ikastolako ume guztiek orain hobeto ezagutzen dutela errealitate hau. Hemendik aurrera, tradizioa bihur daiteke martxoaren 21ero galtzerdi desparejatuen eguna ospatzea Down sindromedun pertsonen alde, zergatik ez?

**Testua eta argazkiak**  
Intxixu eskola





# URTEBETE AUZOAN

*Apirilaren lehenean 365 egun bete genituen auzoan. Navarra Villoslada kaleko Eroski zaharra berreskuratu genuenetik aldaketak hamaika izan dira, bai espazioaren barruan bai kanpoan.*

Barruan, argindarra eta ura lortu ditugu, itoginak konpondu ditugu, sabaia apaindu dugu, hainbat horma eta zutabe koloreztatu ditugu, barra bat eraiki dugu... Beharren arabera, bilera gela, gimnasioa, jolastokia, zinema, zirkua, erakusgela, aretoa, jangela eta eszenatokia bihurtu dugu 400 metro karratuko espazioa, 20 urtetik gorako hautsa pilatuta zuen supermerkatu zaharra.

Kanpora begira, aldaketak are nabariagoak dira. Auzoko elkarten lehen jardunaldiak ospatu ditugu, hainbat hitzaldi eta erakusketa antolatuta ditugu, auzoko emakumeok



**Testua eta argazkiak**  
Errondoko Auzo Etxea



talde feminista sortu dugu (Bilobak Talde Feminista), zirku tailerra, bizikleta tailerra, euskara eta ingeleseko mintza praktika taldeak, boxeo taldea, xake ikastaroa... sortu ditugu auzotarrok elkarlanean. Auzoa saretzeko asmoarekin sortu ginen eta horretan dihardugula esan dezakegu pozez.

Urte betean hasi dira loratzen aspaldi ereindako haziak, maitasunez eta auzolanean zaindu ditugunak. Poliki, baina tinko hazi dira enbortzen auzo honetako ametsak, eta lehenengo uzta jaso dugu jada.

 **ARTEBI**

MUSIKA, ARTE ESZENIKO ETA IKUS-ENTZUNEZKOEN  
BILBOKO ESKOLA

**MUSIKA - DANTZA  
ANTZERKIA - GIDOIA**

Jon Arrospide, 14 - 48014 Deustu-Bilbo tel: 94 475 85 33 faxa: 94 475 56 49  
artebilbao@terra.es www.artebi.es

**YVES ROCHER**  
FRANCE

Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765  
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48  
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303





## DEUSTUKO LEHENENGO BATZOKIAK

*Martxoan berrogei urte bete dira  
Deustuko batzokia zabaldu zenetik.*

*Urtemuga hori aitzakia, jakingarri  
batzuk batu ditugu elizate zaharreko  
lehenengo batzokien gainean.*

**Testua:** Hektor Ortega

Deustuko elizate zaharraren eremuetan gutxienez bost batzoki izan dira azken 120 urteotan. Eta, beharbada, sei. Berrienak ezagunak dira, gaur egun ere atearak zabalik dauzkate eta: Deustuko Batzokia (1978ko San Jose egunean irekia), Sabindarrak (San Inazio, 1979) eta Arangoitikoa. Baina haien aurretik beste batzuk izan ziren, jeltzaleen lehenengo urratsei lotutakoak eta, alde horretatik, sendotasun gutxiagokoak.

Deustuko batzokiaren aurrekaria Batzoki Deustoarra da. Horrek egoitza desberdinak eduki zituen 1904 eta 1937 bitartean: Mirigi Txikia baserria, gaur egungo Ramon y Cajal kaleko eraikina, Viar familiaren etxea...

1914an Deustuko bigarren batzokia sortu zen, Sabindarrak, Elorrieta, Lutzana eta Enekuriko jeltzaleekin. Egoitza Elorrietan zeukan, baina hura ere lekuz aldatu eta are desagertu ere egin zen, tarteka-marteka. Errepublikaren sasoian irekita eta lanean zegoen. Haren oinordekoa da, gaur egungo San Ignazioko batzokia. Lehenengo batzoki bi horien gainean gehiago jakin nahi duenak, informazio ugari aurkituko ditu Borja Sarrionandiaren *La II República y la Guerra Civil en Deustu* liburuan.

### Lehenengo batzokia

Batzoki Deustoarra elkarte 1904ko uztailaren 10ean zabaldu zen, herriko jaietako

Ofrenda Domekarekin. Hilabete gutxi ziren Sabino Arana hila zela (1903ko azaroan). Hortaz, deustuar jeltzaleen ahalegina oso goiztiarra izan zen. Euzkeldun Batzokija indarraren indarrez itxiarazi zutenetik (1895), Bilboko Juventud Vasca (1904ko otsailan irekia) eta Donostiakoa (1904ko apirilean) baino ez zeuden zabalik.

Elkartera Mirigi Txikia etxean (izen bateko baserria egondako lursailean eraikia, gaur egungo Ramon y Cajal kalean, elizatik hur) osatu zen eta bertan jarri zuen egoitza. *Euskalduna* astekariko kronikaren arabera, lehenengo egun hartako ekitaldia elkartearen zuzendari-tzaren aukeraketarekin hasi zen. Bertan zeuden jeltzaleek aho batez onartu zituzten ondoko hautagai hauek: lehendakari, Antonio Mentxaka; lehendakariorde, Jose Sagarna; idazkari, Ascensio Artetxe; diru-zain, Antonio Basterretxea; batzordekideak, Tomas Letamendia, Martin Etxebarria, Faustino More eta Isidro Mazo.

Ondoren, Torrontegi jauna berbetan hasi zen baina orduan, herriko txinel batek, gobernadorearen ordezkari gisa, jarduna eten zion, esanez baimena elkartearen osaketarako baino ez zela. Hortaz, batzokiaren sorrera eguna zorrotz zaindu zuten agintariek.

*Euskalduna* astekariak eta *Patria* agerkari jeltzaleak ñabardura interesgarriak erantsi zituzten: Deustuko abertzaleek eragozpen handiak gainditu behar izan zituzten batzokia sortu orduko: udal hauteskundeak zirela medio euren artean eragindako zatiketak eta herriko abade ohi batek egin zien oposizio latza.

Mirigi Txikiko ugazaba Pedro Urreta zen, Deustuko lehenengo jeltzaleetako. Baina ezagunagoa da 1911ko udal hauteskundeen ostean, zinegotzia zela, bere burkide abertzaleei lepoa eman eta tratua egin zuelako kontserbadoreekin, alkate izendatzearen truke (ikus PREST! 156. zenbakia). Orduan, jakina, batzokia bere etxean egotea problema bilakatu zen. 1912ko urriaren 6an, Batzoki Deustoarrak lokal berria zabaldu zuen Mirigi



Txikitik gorago, Ramon y Cajalen bertan, Bidentetik hurrean.

### Erriberako batzokia ote?

Testu honi amaiera emateko, galdera bat zabaldu nahi dugu. Egon ote zen Olabeagan, Deustuko Erriberan alegia, batzokirik? 1908ko salaketa batek baiezkoa pentsatzeko bidea ematen du, nahiz eta ez ei zuten inoiz modu ofizialean zabaldu. Urte hartako ekainean Erribera kaleko bizilagunek salaketa paratu zuten kale hartako 83. zenbakidun kolarreko lehen solairuko batzokiaren aurka. Solairu hartan bertan bizi zen Wenceslao Otxaranen idazkiaren arabera, "se ha instalado un baskoti o sociedad de nacionalistas que no creo tengan autorización para reunirse en la forma que lo hacen; pero sí sé que no se ha inaugurado hasta la fecha".

Batzokia izendatzeko modu barregarria gorabehera, kexatzeko arrazoia honakoa zen: "Es

imposible señores poder sufrir los alborotos, escándalos, sanzos, gritos, vivas, pataleos y toques de tamboril y cánticos, esto sucede todos los días hasta las once que desaparecen las muchachas de 18 a 20 años y chiquillos de menos edades; y luego quedan ellos, los nacionalistas, hasta que se cansan de molestar al vecindario y se cansan ellos".

Zapatuetan zaratak eta algarak are berandua-gora arte zabalitzen ei ziren. Eta inguruetako bizilagunak gabarrariak eta langileak ziren, goizeko ordu bietatik aurrera ohetik jagi behar zirenak. Horregatik eskatu zioten Deustuko Udalarari batzokia itxiarazteko: "Hacer desaparecer ese Baskoti y pueda establecerse en el alto de Berriz donde puedan gritar y escandalizar como locos, y si no que se unan al bazoki de San Pedro".

Ez dugu aurkitu berri gehiagorik, baina Erriberako batzokiak ez bide zuen luzaroan iraun.



**Kalderapeko**  
euskal kultur gunea

[www.kalderapeko.com](http://www.kalderapeko.com)

txakur kalea, 1. 48005  
bilbo • euskal herria  
tfnoa: 94 416 40 99





## EUSKAL HERRITIK MUGAK ZABALDUZ

*Mugak Zabalduz mugimenduak martxan jarriko du bere karabana, oraingo honetan Euskal Herrian, euskaldunok ere mugak baditugulako. Apirilaren 28an hasiko den hiru eguneko ibilbidean, pertsona errefuxiatuen eta orokorrean migratzaileen eskubideen alde egingo dute.*

### Testua

Andoni Lopez  
Eider Lopez  
Maialen Muro

Hendaia, Irun, Andoain, Iruñea, Tuter, Gasteiz, Zierbana, Santurtzi eta Bilbo. Helmuguen erabakia ez da kasualitatea. Mugak Zabalduzek internazionalki ikusi dituen gabeziak gurea ekartzeko beharra sumatu du. Hendaian berriz zabaldu den etorkinentzako espetxea (CIE) adibide bat besterik ez da. Bertan, deliturik egin ez duten errefuxiatuei bidegabeke-rian oinarritutako zigorrak inposatzen dizkiete.

Hendaia eta Irunen arteko mugan badago salatu beharreko beste egoera bat, legalki babestuta dagoena Malagako Akordioaren arabera –Frantziak eta Espainiak 2002an sinatutakoa–. Paperik gabe bertatik gurutzatzen duena lau orduko epean kaleratua izan daiteke, inolako prozesu administratiborik gabe. Horregatik garbi utzi nahi dute Euskal Herrian ere muga badagoela. Lehenengo eguneko hurrengo helmuga Andoain izango da, bertako SAPA Placencia enpresak AEBko armadari artilleria astuna saltzen diola aditzera emateko eta ekintza hori salatzeke helburuarekin. Armen trafikoa hau SAPA Placenciaren eta AEBren arteko lau urteko kontratuak bermatzen du. Eguna Iruñean amaituko da. Bertako Elhadki Ndiaye 42 urteko senegaldarra, 2016an arrazakeria arrazoiengatik atxiloteta bortitz baten biktima izan zen, horrek bere heriotza ekarriz. 2017an kasua artxibatu zen, magistratuak “bihotzeko etiologiak eragindako bat-bateko heriotza” izan zela argudia-

tuz. Mugimenduak ez du hori onartuko.

Bigarren eguna Tuteran hasiko dute. Garrantzia eskainiko diote Gasteizen aldarrikatuko duten euskal eskola publiko inklusiboari, umeen hezkuntzan jatorriak ez daukalako pisurik. Gaua Gasteizen pasa ostean, karabana pertsonen trafikoa salatuko du, emakumeen gaiari garrantzia emanez. Ezin dugu-lako ahaztu errefuxiatuen kontura esklabotza sustatzen duen mahats-bilketaren inguruan murgiltzen den mafia. Bilbotik igaro ostean, Zierbanako kanpamenduko egoera salatuko dute. Bertan Britania Handira sartzeko behar duten bisa berezia eskuratu bitartean, hiru hilabete igarotzen dituzte. 60-70 gazte inguru daude bertan, poliziaren abisu gabeko sare-kadei aurre ginez.

Azken geltokia Bilbo izango da, non xede nagusia kapitalismoak etorkinei eragindako esklabotza gartzigatzea izango den. Kapitalismoari buruz hitz egiterakoan, Inditex eta bankuak sortutako egoerari eta honek Bilbon duen lekuari buruz ari gara. Guzti honek gizar-tean eragina izateko, Deustuko gazteei deia luzatu nahi diegu, bai karabanan aktiboki parte hartzeko edota testuan salatutako guztia publikoki salatzeke. Karabanan izena emateko epea oraindik zabalik dago eta *mugakzabalduz.eus* webgunean aurkituko dituzu jarraibideak.



## AKTIBATZEKO MEZUA

2014tik ari da Gure Esku Dago herri ekimena talkak atzean utzi, eta ezberdinen arteko harremanak eta loturak ehuntzen eta sendotzen, galtzaileen kontzientzia kolektiboa gaintitzen, “dena irabazteko dugun herria garelara” adierazteko, Goizalde Landabaso kazetariak Deustuko Bidarte udalategiko aurkezpenean esan duenez.

Bost urteko bidean hitzak aparteko garrantzia izan du Gure Esku Dago dinamikaren baitan. Tresna funtsezkoa izan da, eta horrela aldarrikatu dute aurkezpenean: “Hitza hartzea eta ematea, hitzak gainezka egin arte”.

Hitzaren bitartez lortu dute auzoz auzoko eta herriz herriko lantaldeek erabakitze eskubidearen gaia “naturalizatzea”. Eztabaidak duela lau urteko tentsioa galdu du Alex Arregi Deustuko taldekidearen esanetan, eta egun hizketagai normala da herritarren eta taldeen artean.

Konplizitateak josiz jarraituko du Gure Esku Dago aurrera begira ere. “Gure etorkizuna erabaki arte lanean jarraituko dugu eskuz esku, elkarrekin soilik lortuko baitugu”, Goizalde Landabasoaren hitzetan.

Hurrengo urratsa ekainaren 10eko Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen giza katea antolatzea

da. “Arrazoiak erakusteko eta indartzeko eguntzat” jo dute ekainaren 10eko hitzordua. Bi hilabete baino gutxiago falta direnean, “aktibatze” gomendioa luzatu dute Deustualdeko bi taldeek.

Giza kateko 2019 kilometroetako 13 kilometro Bilbori dagozkie, horietatik hiru kilometro Deustualdeari –119, 120 eta 121 kilometroak–, eta horiek antolatze laguntza eskatu dute. Kilometroko 500 pertsona behar dira, beraz, guztira 1.500 deustuar gutxienez. “Deustuk 2014an 844 lagun 13 autobusetan Lazkaoraino eramatea lortu bazuen, 2018an gai gara 2.000 lagun batzeko Deustun bertan”. Horra Deustuko, San Ignazioko, Ibarrekolandako eta Elorrietako taldeen erronka, erronka “handia da”, Alexen irudiko. Horregatik lantaldeetan aktibazio lanerako “jende gehiago eta jende gaztea” behar dutela nabarmendu du.

Giza katean parte hartzeko izena eman beharra dago auzoetako taldeetan, “partaideak kilometroetan zehar antolatze, eta hutsuneak ekiditeko”. Izena ematean, zapi baten truke, bost euroko ekarpena eskatuko dute Gure Esku Dago kideek “egun horretako gastuei aurre egiteko”. Ostegun arratsaldero Mullerenean (Ramon y Cajal 42) aukera izango da informazioa jasotzeko eta izena emateko.

Testua  
Prest!

# JOKOTEKNIA

## I. EUSKAL BIDEOJOKO JARDUNALDIA

MAIATZAK, 12 / 09:00-14:00 LARUNBATA  
AZKUNA ZENTROAN BILBO



[jokoteknia.eus](http://jokoteknia.eus) **Izena eman**

**AZKUE**  
FUNDIRIA

**GAME**  
ERANTZUNA

**CodeSyntax**

**DigiPen**  
DIGITAL ARTS & TECHNOLOGY



# D

## berbetan

IVAN ALLUE HERMOSILLAekin

Multinstrumentista folkie *rara avis*-a

**“Nire ikasleek txistulari talde handi bat**

*Musika jotzea eta musikarekin ondo pasatzea gustuko du San Ignazioko Ivan Alluek (Bilbo, 1976). Kontu kontari, bere ibilbidearen eta esku artean duen proiektuaren berri eman digu.*





Testua: Lur Mallea - Argazkiak: Iñigo Azkona

## sortzeak ilusio itzela egingo lidake”

### Musika tresna asko jotzen dituzu. Zer zara izatez?

Zein tresna jotzen dudan azaldu behar dudanean bertako instrumentuekin hasi ohi naiz: txistua, txirula, ttuntuna, alboka, dultzaina eta panderoa jotzen ditut, eta atabala eta txalapartarekin defenda naiteske. Beste herri batzuetako tresnak ere jotzen ditut, gaita irlandarra eta eskoziarra eta *whistle* txirula irlandarrak, esaterako. Multinstrumentista folkie *rara avis* bat naiz. Folk musikatik edan baitut gehien bat. Anaiak kutsatu zidan folk zeltiarrarekiko maitasuna. Egia esan, gero eta gehiagora zaleak.

### Zergatik diozu *rara avis* bat zarela?

Tresna asko jotzen ditudalako. Normalki musikariek tresna bat edo bi bakarrik jo ohi dituzte. Gaita eskoziarra erostea jauzia izan zen niretzat. Fax bidez jaso nuen katalogoa, eta nire andreak eta koinatak lagundu zidaten itzultzen. Sarrikoko parkean entseatzeko nuen ezin bainuen San Ignazioko Kultur Etxean jo. Zoratuta nengoela pentsatzen zuten. Musika tresnekin dibertitzea gustuko dut. Nire alabari zein beste edonori horixe esango nioke, musikarekin diberti dadila.

### Ikuskizun bat prestatzen ari zara? Zelakoa?

Musika tresna asko erosiz joan naiz. Bizkor maneiatzen direnak ditut gustuko, probetxua ateratzeko. Bilduma handia osatu dut. Auzokide dudan irakasle batek bere ikastetxera hitzaldi bat ematera joateko

eskatu zidan. Musika tresnak erakustea zen nire xedea. Besteak beste, umeek ikas zezaten dultzaina oboearen birramona dela. Hitzaldi horien ostean, bururatu zitzaidan zerbait prestatzea eta antzerki ikutua ematea. Pertsonaia bat asmatu dut, Txistuman. Txistu itxurako txotxongiloa da, Javi Tiradok egina.

### Zergatik txistu itxurakoa?

Txistua oso tresna garrantzitsua da niretzat, txistuak zoriontasun handia eman dit. Berari esker sartu nintzen Goi Herri dantza taldean, eta bertan ezagutu nuen egun nire andrea dena. 2000. urtean Hannoverreko nazioarteko erakusketan parte hartu zuen Goi Herriko. Espainiako pabiloira eskal folklorea eraman genuen. Bertan hasi nintzen nire buruari *txistuman* deitzen. Izan ere, superheroiak oso gustuko ditut.

### *Txomin & Txistuman* izena jarri diozu ikuskizunari. Prestaketan ari zara burubelari. Zelan doa?

Teknikoki zailtasun handia du nik bakarrik maneiatu behar baititut dena aldi berean: *loops padalera*, mikroa, antzezpena... Koordinazioa da konplexuena. Horregatik erabaki dut sinplifikatzea. Izatez, kontzertu bat da, baina kontzertu horretara Txomin zuzendaria eta biok bakarrik agertuko gara, gainerako musikariak ez. Zuzendaria musikarien bila doan bitartean nik musika tresnak aterako ditut eta, bihurria naizenez, melodiak harrapatzen dituen makinarekin jolastuko dut.

“Musika tresnekin dibertitzea gustuko dut”

# berbetan

IVAN ALLUE HERMOSILLArekin

## “Dantza taldeak asko aberasten du”

### Zure ibilbidearen jatorria Goi Herri dantza taldean dago. Nolatan?

Hamabost urterekin sartu nintzen taldean, eta egun ere jarraitzen dut, nahiz ardura gutxiago izan. San Ignazioko Kultur Etxea existitzen zenean, astegunetan eta larunbatetan egon ohi ginen bertan. Nire lehen dultzaina eta txirula Goi Herrik erosi zizkidan. Dantzariak kantatzen zizkidaten abestiak nik ikasteko. Solfeoa ikasteko modu ona zen hura. Horrek zaildu egiten zaitu. Alardeetan jotzeak, ezkontzetan...

### Txistuak eta folkloreak oro har behera egin dute?

Albokak, esaterako, gorakada handia izan du. Ez dut uste txistuak behera egin duenik. Intxixu ikastolan eskolaz kanpoko jarduera bezala txistua irakasten dut, eta lehia latza dauka edozein ekintzak futbolarekin.

### Zergatik desberdintzen dituzu txistulariak eta dantza taldeetako txistulariak?

Dantza mundua baztertzeko dutelako zenbait txistularik. Nik ez diot dantza taldeetatik pasa behar denik, baina asko aberasten duen esperientzia da, niretzat behintzat horrela izan da. Gogotsu parte hartzen nuen entseguetan, nire aisialdia taldean ematen nuen, eta barre asko egiten genuen.



### Zer lortu nahi duzu ikuskizunarekin?

Ohikoak ez diren edota ezagutzen ez dituzten musika tresnak umei erakustea eta horrekin gozatzea. Alboka eta tuntu-na, esaterako, askok ez dute ezagutzen. Ezta nagusi askok ere. Txistua eta danborra ezagunagoak dira. Baina galdetuz gero hiru zuloko euskal flautak zein izen duen, askok ez lukete asmatuko.

### Urtebete daramazu Ez dok hiru, euskal musikaren benetako istorioa ikuskizunean. Zelan moldatu zara?

Asko ikasi dut antzerkiari buruz Patxo Telleriarekin eta Mikel Martinezekin, entseatzen, prestatzen, eszenara irteten... oso desberdina izan da niretzat. Antzoki asko ezagutu ditut. Publikoak ondo pasatzen du, barre egiten du, eta hori oso atsegina da. Umorea eta musika dituen obra da, konbinazio bikaina nire ustez.

### Dronadar taldean egin zinen ezagun. Zer eman zizun Dronadarrek?

Bufo! Lagun kuadrilla ginen. Hamairu urte eman genituen talde gisa. Oso ondo pasatzen genuen entseatzen eta jotzen. Kontzertu gabe ere astean bitan entseatzen genuen. Orduan, 1996an ez zegoen

euskal folka zeltiarrarekin nahasten zuen hainbeste talde. Oso pozik eta harro nago Dronadarrekin ezagutu ditudan pertsonak asko izan direlako, oso ezberdinak izanik ere musika genuen lotura. Ezagututako lagunei esker jo nuen aurrerago Pantxoa eta Pellorekin.

### **Zelako esperientzia izan zen lau urtez Pantxoa eta Pellorekin jotzea?**

lñaki Dieguezen bitartez sartu nintzen taldean. Aurretik lñakirekin jo nuen eta Igor Telletxea, Julio Andrade eta Mixel Ducarrekin. Denak makinak. Pantxoa eta Pello ezagutu nituenean berehala egin ginen lagun. Oso umoretsuak dira, eta taldea familia handia bat da. Txirula, panderoa, gaita irlandarra eta *whistle* txirula jotzen nituen taldean. Behin irrintzia bota nuen 'lepoan hartu eta segi aurrera' abesten ari zirela, eta Pellok aurrerantzean beti irrintzia botatzeko esan zidan.

### **Euskalduna Jauregian bitan gutxienez jo duzu. Zer dela eta?**

Jauregiaren inaugurazioan parte hartu nuen Hortzmuga taldearekin batera. Handik hainbat urtera Pantxoa eta Pelloren kontzertuari nik eman nion hasiera Euskaldunan. Dena ilun zegoen, sabaiko izarrak bakarrik ikusten ziren. Jendez beteta zegoen. Sekulako unea izan zen. Urduri nengoen eta tentsioa kentzeko etxera heltzean prestatuko nituen krispetetan eta ikusiko nuen superheroien filman pentsatu nuen. Agian, musika nire ogibidea ez izateak patxadaz jarduteko aukera eman dit. Baina profesionalekin lan egiteak lan ona egitera behartzen zaitu.

### **Pentsatu duzu inoiz musikari profesional gisa aritzea?**

Furgonetan bidaiatzea ez dut gustuko; Galiziara orain, Logroñora bihar, Irlandara etzi. Maila horretan ibiltzeak ez nau erakarrri. Bizkarreko arazoak ditut eta, gainera, ez dut gustuko gidatzea. Nire esparrua Euskal Herria da. Haratago joatea, emm... Carlos Nuñezek deitu zidan behin Santanderren kontzertua emateko, gaita eskoziarra eta txistua jotzeko. Joan nintzen. Baina nik etxean lo egitea gustuko dut.


### **AEBetan ekoizitako filmetan parte hartu duzu. Zelan lortu duzu hori?**

Fernando Velazquez konposatzailea eza gutzen nuen. Juan Antonio Bayona zuzendariaren filmi musika jarri die Fernandok. Dwayne Johnson *The Rock* protagonista zuen *Hercules* filmerako lanean ari zen, eta melodia greziar batzuk eskatu zizkidan. Asuako kanaberekin *auslos* instrumentu greziarraren antzeko soinua lortzen ahalegindu nintzen. Baina ez nuen lortu. Gero albokarekin grabatu nuen, baina ez zitzaion gustatu, melodia sentsualagoa nahi zutelako. Azkenik *whistle* txirula batekin jotako doinua erabili zuten pelikulan. Oso atsegina da zure musika entzutea zinean. Pentsa alboka gustatu izan balitzaie!

### **San Inazio txistu banda bat sortu nahi duzu. Zergatik?**

Ilusio itzela egingo lidake Goi Herrin eta Intxitun ikasten duten nire ikasleek txistulari talde handi bat sortzeak. 'Hauek nondik irten dira?', jendeak galdetzean, 'San Ignaziotik', erantzuteko.

**“Musika nire ogibidea ez izateak patxadaz jarduteko aukera eman dit”**





EUSKAL JAIA

## XIV. Euskal Jaia Arangoitin

Maiatzak 5etik 13ra ospatuko dute aurten Arangoitiko auzotarrek Euskal Jaiaren 14. edizioa beren-beregi egindako kamiseta soinean dutela. Goiztiarrenak pala txapelketako jokariak izan ohi dira. Interesa duen orok izena eman dezake jada txapelketan. Lehen asteburuan pala norgehiagokaz gain, triki kalejira ere izango da. Bertan mintza lagunek euskaraz barra-barra egiteko aukera izango dute. Asteazken zehar ipuin kontaketa saioa, zineforuma, Euskotarrak kororekin emanaldia, Bilboko Udal Txistulari Bandaren kontzertua eta Batuke Bulegoaren funtzioa antolatuta dituzte. Bigarren asteburuan, herri bazkaria, mus txapelketa, haurrentzako berbena, kantu kalejira, Okrestaren emanaldia eta azoka izango dira, besteak beste.

EUSKARALDIA

## Euskaraldia bultzatzeko jaiak

Deustualdeko 11 Egun Euskaraz lan-taldeak jaialdia antolatu du maiatzaren 25ean Deustuko Gazte Lokalean Euskaraldia bultzatzeko. 21:00etatik aurrera Orbelak eta Zitzada taldearen kontzertua eta DJ saioa izango dira.

Hamaika egunez, azaroaren 23tik abenduaren 3ra "ariketa sozial" gisa definitu duten egitasmoa da Euskaraldia. Deialdia kolektiboa bada ere, Euskaraldiak pertsona du giltzarri. Nork bere hizkuntza ohiturak aldatzea eta egunerokoan euskara gehiago erabiltzea du xede.

Deustualdean iaz egin zuten *Hamaika egun euskaraz* beroketa saioa.



DEUSTUKO KANALA

## Kanal hondoko lurra ateratzeari ekin diote

Gangil motako ontzi batek egunean bi ziklotan 2.500 metro kubiko lur ateratzen ditu eta lehen fase honetarako Cadenas Vicinay lantegi zaharrekoi kaltetako batean pilotzen ditu. Bigarren fasean, Kanala irekiko dute. Horretarako beste ontzi bat erabiliiko dute prozesua bizkortzeko. Guztira, 260 mila metro kubiko hondakin atera eta garraiatuko dira Zierbenako Superportura, bertan pilotzeko. Aurreikuspenen arabera, udazkenean penintsula irla izango da. Argazkia: Jon Rojas



## 2019ko udan egingo dira amiantoa kentzeko lanak Arangoitiko eskolan

Eskolako teilatuetan amiantoa kontrolpean dago Hezkuntza zinegotziaren esanetan. Kapsulatuta baitago. Uralitak ez du zirrikuturik eta, hortaz, ez du arriskurik. Horixe adierazi zien Koldo Narbaiza zinegotziak Arangoitiko eskolako arduradunei. Narbaizak azkar erantzun zion Eskola Kontseiluak eginko deia Arangoitin alarma piztu eta gero. Bere ulean jaso ez zuten informazioa eta azalpena jaso zuten eskolako kideek, eta aitortu dutenez, "lasaitu" egin dira. Teilatuetan dagoen amiantoa

kentzeko lanak datorren urteko udan egingo dituzte Arangoitiko eskolan. Zinegotziaren hitzetan horrela adostuta zuten Bilboko Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin. Guraso batzuk eskolaren egoera zehazteko jakiteko txosten bat eskatu zioten zinegotziari, eta honek txostena helarazteko konpromisoa hartu zuen. EH Bilduk salatu duenez, Udalak gobernua eskolako amiantoa kentzeko konpromisoa ez du bete, eskolen mantenua Udalaren eskumena denean.





Urtea: 1971

Txema Luzuriaga

## *70eko hamarkada*

Irudi ederra da hau, 70eko hamarkadakoa. Bertan, Arangoiti, Irakasleen Eskola (desagertua) eta hilerria erraz bereizten dira eta, Madariaga etorbidearen lerroa jarraituz, Pasiotarren eliza, Salesianos, ikus daiteke, La Salleko eskola zaharra eta amaieran Villa Maria Luisa eta Linos txakolina.

Kanalaren lerroan portuko jarduera hasiberria nabaria da, Euskalduna auzoaren aztarnen ondoan, eta egin gabeko Morgan, Jon Arrospe eta Sarasate musikariaren kaleak. Behealdean, berriz, Erriberako industria jarduera. Argazkia: Sancho el Sabio Fundazioa, Gasteiz.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

**~IZEKI~**  
**TABERNA**  
 BETI ZIZEKAN SUA  
 argi bat izeki zen zeruan  
 su horidun sugarra ostopo  
 Itzalsuen atzean  
 Ramon & Kaja 26  
 DEUSTU

**DENDA IREKIERA**  
 gizonentzako denda

**Level 1**

Madariaga 10 DEUSTU  
 level1.es 946 85 53 80

**Optica**  
*Avenida*

Agirre Lehendakaria, 147 Tfonoa:  
 SAN INAZIO 94 475 11 24

**ATXURI**  
**TABERNA**

Luzarra 1  
 Deustu  
**946 75 40 17**

**BREST**

kafetegia  
 Blas de Otero, 5  
 Tfnoa: 94 447 95 43

**Alonso Pertsianak**  
 Plaza Celestino M<sup>a</sup> del Arenal, 12  
 48015 Deustu-Bilbao  
 Tel.: 94 600 14 24  
 alonsoper@euskalnet.net

**Urrunago zertarako?**  
 Deustuko Liburudenda  
 San Pedro Plaza 4

**KABIA**  
 ● GASTRONOMIA ● TABERNA ● KULTURA

ORIXE KALEA 48  
 SANI

1924tik Deustun

**Tintorería**  
**La Flor**

Julio Urquijo 3 - Deustu  
 94 475 18 29

Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze  
 jantziak...garbitzen ditugu

**artez**  
 euskara zerbiztua

**Probatu**  
**herrizki.eus**

ANDROID APP Google play Apple App Store

Ramon y Cajal, 8 behea  
 48014 Deustu  
 tel. 94 475 22 33  
 matxintxu@aeknet.net

**Matxintxu**  
 aek ■ euskalategia

Matrikula zaitetz!

**Nailan**  
 Parquetak - Bamizak

Morgan kalea z/g  
 48014 Deustu - Bilbo

tfno: 94 475 67 84  
 nailanparquet@euskalnet.net

**RONDOKO**  
 HORTZ KLINIKA

*Iratxe Jimenez Bobadilla*  
 ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855

Odontologia orokorra eta prebentiboa  
 Ume eta helduak  
 Tratamendu estetikoak eta garbiketa  
 Peridontzia eta protesi kengarriak  
 Ortodontzia

PADI  
 OSAKIDETZA

Errondoko z/g, SAN INAZIO  
**94 475 5932**  
 E.P.S. 425/97

**Bitxidenda**

**Sabin**  
 Erlojudenda

Rafaela de Ibarra, 6  
 Tfnoa 94 475 63 16

**PERSIANAS**  
**KM**  
**CERRAMIENTOS**

**Deitu eta Ikusi!!**

PERTSIANAK ETA ITXIDURAK

Araneko, 28 - 48014 Bilbao  
 TEL. 94.447.70.32  
 E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com  
 www.persianaskm.com

**BIDAURRE**  
 elektrizitate eta margo-lanak  
 2daurrelan@gmail.com  
 669 42 76 23



## Zer deritzozu curriculumean gezurrak esateari eta tituluak faltsutzeari?



**Aitor  
San Ignazio**

Alde batetik, lan mundua dagoen moduan, normala da. Bestetik, ez da normala ikasleek eta irakasleek egunero egiten duten lana gutxiesten delako.



**Paula  
Deustu**

Agintari gezurtien estatua da hau. Master faltsuak pilpilean daude. Hainbeste gauza estaltzeko erabiltzen ari dira gaia.



**Jon Ander  
San Ignazio**

*Titulitis* handia dago eta maila batera arte curriculum luma atontzea ulertzen dut, tituluaren eskaera handia delako. Faltsutzeak tituluei balio kentzen die.



**Tere  
Lekeitio-Deustu**

Benetan gogoz eta adoretz lanean ari den ikasleen aurkakoa da, gure seme-alaben etorkizunaren kaltetan. Ametiezina.



**Iñaki  
Getxo**

Inori kalterik egiten ez zaion bitartean... Lanpostu eredu-garrietan, ordea, ohiko zigorra baino gogorragoa merezi dute gezurtiek.



**Joana  
Izarra**

Esfortzuekin lortzen dira tituluak. Gezurra esateak eta tituluak faltsutzeak ez dute laguntzen. Ez zait baxterez ondo iruditzen.



# harkua bete berba

>> FOLKLOREA



## ERRALDOI BERRI PAREA

*Ondalan erraldoien konpartsak bi erraldoi berri aurkeztu ditu Elorrietan, Jaun Zuriaren eta Dalda Estigizen erraldoiak.*

Testua: Prest! Argazkiak: Ondalan

Irrika suma zitekeen Ondalan konpartsako kideen artean bi erraldoi berriren estreinaldiaren atarian. "Guretzat seme-alaba bi izatearen parekoa da", dio Ondalaneko Jabi Ortegak. Konpartsaren 15. eta 16. seme-alabak dira joan den apirilaren 22an, Elorrietan aurkeztutakoak. Ez da marka makala, izan ere, "Euskal Herrian oso herri gutxi dituzte 16 erraldoi", dio harro Ortegak.

Jaun Zuriaren eta Dalda Estigizen izena eta itxura dute erraldoi berriek. Bizkaiko lehen jaunarena eta bere bigarren andrearena. Biak ala biak Kukubiltxo antzerki taldeak Ondalari emandako figurak dira. Jose Antonio Obregon Tarzi arduratu da egituraz eta Marife Martinez jantzieta. 30na kilo inguruko pisua dute, eta Aker eta Mari erraldoiekin batera osatuko dute Ondalaren "mitologiaren atala".

15 urtetik gorako dantzariak dantzatu ahalko dituzte Jaun Zuria eta Dalda Estigiz. Izan ere, taldearen asmoa "gazteak erraldoiak dantzatzera animatzea da". Aurrerantzean, gazteek aukera gehiago izango dute. Egund, Ondalan konpartsak sei urtetik gorako kideak ditu.

### Sekretupean gordeta

Estreinaldi egunera arte ez dute erraldoi berrien argazkirik zabaldu nahi izan taldekideek. Detalle batzuk soilik erakutsi dituzte. Bi erraldoiak sekretupean gordeta lortu dute Ondalaneko kideek ikus-mina sortzea herritarrengan. Hitzordura hainbat lagun hurbildu ziren, tartean, oso erraldoizaleak diren ume ugari.

Ez da kasualitatea Elorrieta hautatzea estreinaldirako. Ondalaren orain arteko 14 erraldoiak San Ignazio, Arangoitin eta

Deustun estreinatu ostean, taldeak Elorrietarekin zuen zorra kitatu du. Apirilaren 22an auzoan antolatuta zegoen merka-

tuaren ingurumaria baliatzen zuten aurkezpena egiteko. Ostean, 16 erraldoiak kalejiran abiatu ziren Elorrietan zehar.





[www.facebook.com/DHT30urte](http://www.facebook.com/DHT30urte)

### Deustuko Triki Jaialdia

Maiatzaren 19an, larunbatarekin, ospatuko da Deustuko lehenengo Triki Jaialdia. Egun osoko egitaraua prestatu dute Herriko Tabernako lagunek Bihotz Alai eta Mikeldi dantza taldeekin eta Deustuko Jai Batzordearekin batera. Izan ere, Deustun trikilaria eta panderojole asko daude, batzen dira, baina ez nahi beste. Trikitiari eta panderoari erreferentzialtasuna emateko antolatatu dute jaialdia, non eta Done Petri plazan, Deustuko erdigunean, urte osoan apenas erabiltzen den espazioan. Hitzorduan Deustuko musikariak ez dira bakarrik izango, ondoan izango baitituzte Bilboko, Txorierriko eta Uribe Kostako musikariak.

Artisautza azokaren irekierarekin abiatuko da eguna. Gero kalejiran abiatuko dira trikilaria eta panderojoleak Deustuko kaleetan zehar. 13:30ean hasiko da Bihotz Alai eta Mikeldi taldeen erromeria Done Petri plazan eta ostean Gure Herriako haurren dantzaldia. Atsedenealdian elkartuko dira herri-bazkarian. Bazkaltzeko bonoak Deustuko, Alde Zaharreko, Txorierriko eta Uribe Kostako tabernetan eskuratu ahalko dira. Bazkolestean, mikro irekiera edota *jam session*-a izango da eta arratsaldean, amaiera ekitaldian, hiruzplau trikitilari ezagunen kontzertua izango da. "Zerbait berezia" prestatuko dutela aurreratu dute antolatzaileek.



# NEUMÁTICOS MITXEL



**Deskontu handiak!!!**

**Mekanika azkarra: gurpilak, filtroak, olio aldaketak, bateriak, frenoak, etabar...**

Blas de Otero 59, Deustu [Ikastetxearen aurrean]




Kontaktua:  
94 407 26 69  
[neumaticosmitxel@gmail.com](mailto:neumaticosmitxel@gmail.com)



ABIRILA PRESTO 100





>> LITERATURA

## TRETATXU, BANDOLERO SOZIALA

*Erronka handia izan da Hektor Ortega historialari, kazetari eta PREST! aldizkariko taldekidearentzat Bautista Landa 'Tretatxu' lapurraren biografia eta bandolero soziala izan zela frogatzeko tesia idaztea.*

**Testua eta argazkia:** PREST! - **Azalaren irudia:** Gorka Aranburu

Xabier Amurizaren Bizkaiko bertsogintzari buruzko liburu bat irakurtzen ari zela erabaki zuen Hektor Ortega historialari eta kazetariak Larrauriko Bautista Landa *Tretatxu*-ren (1716-1761) inguruan sakontzea. Kopla zahar batzutan *Tretatxu* lapurraren berri irakurri zuen. “*Tretatxu* Larrauriko / Landako semie / Bizkaiko lapur danen gobernadorie”, dio kople-tako batek. Arreta deitu zioten koplek. Berarentzat ezohikoak ziren, eta astia zuenean agiritegietan *Tretatxu* izeneko lapurra benetan existitu zen ziurtatzea pentsatu zuen. 2002an beren-beregi jo zuen *Tretatxuren* zantzuen bila, eta informazio asko aurkitu zuen. “Asko egotea oso ona da ikertzai-learentzat”, Hektorren esanetan, eta era berean oso nekeza, “horrek denbora asko eta dokumentazio asko prozesatzea eskatzen duelako. Baina benetako pagotxa da; horri esker berregin ahal izan baitugu *Tretatxuren* bizitza modu zehatzean”.

XIX. mendeko lehen erdialdean kokatzen dute historialariek euskal bandolerismoaren aro loria-tsuena. *Tretatxu* tarte horretan kokatzen da eta, hortaz, baditu

euskal bandoleroen ezaugarri oso klasikoak –lapurretak egiteko moduagatik eta kuadrillak osatzeko moduagatik–, baita berezitasun propioak ere. Etxejabea izan zen *Tretatxu*, eta horrek egiten du desberdin. Izan ere, “oso, oso gutxitan gertatzen da baserri jabe batek bere etxea, andrea eta seme-alabak utzi eta bidelapurre-tara joatea”. Zeozer “oso larria” gertatu den seinale da, eta badu bere azalpena, hiru faktoretan oinarritzen dena. “Batetik, testuinguru sozioekonomikoan. XVIII. mendea hazkunde beteko aroa izan arren, hazkundearen etekinak gutxi batzuentzat baino ez ziren izan, eta nekazariak bereziki oso kaltetuta atera ziren mende horretan. Baserritar errenteroen bizitza kalitateak nabarmen egin zuen behera eta baserritar etxe-jabeen egoera ere kaskartu zen. Horien artean zegoen *Tretatxu* bera. Bigarren faktorea Mungialdeko jauntxo familia batekin izan zuen talka oso latzarekin lotuta dago. Talka horren ondorioz jauntxo horiek *Tretatxu* nondik galdu ibili ziren, eta bizitza ia-ia eragotzi zioten. Eta hirugarren faktoreak bere nortasun handia du oinarri. Listo zegoen hozka egiteko

egoerak hala eskatuz gero eta, kontrara, ez zegoen prest bere bizitza emateko modu errukigarri batean lanean ogi zati baten truke”. Argi zuen *Tretatxuk* bizimodu tristea ez zela berarentzat, eta bere kontra agertu ziren indarren aurrean, aterabidea aurkitu zuen; lapur ibilbidea izan zen aterabide hori.

Horrelako pertsonaia harrigarriarekin anekdota piloa bildu ditu Hektorrek. “Batzutan, espero ez dituzunak”. Eta hala ere, *Tretatxuren* bizitza estereotipoetatik hurbil egoteak harritu du gehien. “Bandolero sozialaren estereotipoa betetzen du. Bere bizitza zelakoa izan zen kontutan hartuz gero, bizitza hori pelikula askotan ikusi dugula ohartzen gara, *western* askotan. Pertsona zintzoak dena utzi behar du, eta legez kanpo jartzen du bere burua jauntxoek nahieran erabiltzen duten *sheriff*-ari aurre egiteko. Horrelako historia bat da hau ere, baina AEBetan XIX. mendean gertatu beharrean, XVIII. mendean Mungialdean gertatzen da”.

Bizkaian eta Gipuzkoan dokumentazioa aurkitu duen arren,

Tretaxuren aurkako auzi-atal gehien Euskal Herritik kanpo aurkitu ditu Hektorrek, Valladolideko artxiboan, hain zuzen ere. Hori izan du zailtasun handiena: eskura izan ez duen artxibategiko dokumentazio-lana. “Hori egin gabe ikuspegi murrizta izango genukeen”, eta hori gertatu zaie historialari batzuei. Horregatik bertako dokumentazioarekin bakarrik Tretaxuren gainean atera duten inpresioa eta irudia ez da Hektorrek atera duena.

Aurretiaz beste batzuk baztertu duten arren, Hektorren tesiaren arabera, Tretatxu bandolero soziala izan zen. Eric Hobsbawm historialariak sortu zuen bandolero sozialaren kontzeptuarekin bat datorrelako. Orain arteko ikerketek baserritarrek mito bihurtutako euskal lapur eskuzabal bakarara atera dute argitara: Manuel Antonio Madariaga Patakon. Gainerako kasuak baztertuak izan dira, besteak beste, Tretaxuren kasua. Hektorren ustez historiografiak “euskal bandolero sozialaren auzia errazegi baztertu du”. Patakon baino ez du onartu, baina Hektorren esanetan, “Patakon dago, Tretatxu dago eta gehiago daude”.

Hori frogatzeko Tretaxuren bitzta bandolero sozialarentzat ezarritako parametroetan sartzen den aztertu du. Ahozko tradizioan, baserritarren gomutan iraun izana oso adierazgarria da. “Ez da baka-



rik *rollo* erromantikoa, garrantzitsua da subertsio ekintza zelako”. Laurri, Meñaka eta inguruko baserritarrek heroiztat hartu zuten Tretatxu, inguruko jauntxoentzat, Bizkaiko korrejidoarentzat eta Bizkaiko egitura politiko guztientzat “gaiztoenetan gaiztoena” zenean. “Herriko gorotza” ere esan zioten. Tretaxuren bertsoak “botereari erronka argi eta garbia dira”, egileren hitzetan. Beheko eta goiko klaseen arteko aurkakotasun zuzena agertzen dute, eta “baserritar horiek euren justizia zentzu propioa bazutela, eta euren heroiak eta diskurtsoak garatzeko indarra eta gogoia bazutela erakusten dute, nahiz mitifikatuta egin”. Matxinadetan erakutsi zuten bezala ekonomiaren eta foruen ikuspegi propioa zutela. Askotan pentsatu bada ere goian zeudenek agintzen zutela behean

zeudenak ez zirelako ezertaz ohartzen, ez da horrela Hektorren iritziz, “behekoak ez baitziren hain otzanak”.

Bere aurreko historia lanak ez dira Tretaxuren biografia liburua bezain sakonak izan. Horregatik izan da azken hau “erronka handia” Hektorrentzat. Alde horretatik, “aurrepausoa” izan dela dio, eta oso pozik dago emaitzarekin, “interes handia” piztu duelako, eta “harrera goxoa” izan duelako.

Euskal bandolerismoari buruz hainbat liburu eta artikulu idatzi dira, baina ez da idatzi euskal bandolero baten biografia libururik aurretik. Bigarrena uste baino lehenago hel daiteke. Hektor Ortegak barre artean dio bandolero gehiago dauzkala itxaron zerrendan.



**PABELLÓN N.º 6**  
ARTE ESZENIKOAK

[www.pabellon6.org](http://www.pabellon6.org)

2017-2018 denboraldia

**EGIN ZAITEZ  
BAZKIDEA**

**HAZTE  
SOCI@**

temporada 2017-2018





# PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

## UDABERRIKO SANDWICHA

*Done Petri plazan bertan dagoen El Viejo Roble tabernara jo dugu oraingoan. Egunero barran jangarri egoten diren sandwich, pintxo, tortilla, hanburgesa eta plater konbinatuen berri eman digute Pedro eta Elenak.*

**Zailtasun maila:** txikia

**Egiteko denbora:** hiru minutu

**Prezioa:** 1,60€

**Berezitasuna:** freskoa, goxoa eta bizkorra da sandwich hau

### Kontu batzuk

Udaberriarekin batera berrikuntzak iritsi dira El Viejo Roble tabernara. Garagardo berriak: Heineken, Amstel Oro eta Paulaner edota sagardo nahastean duen Ladron de Manzanas cider tankerakoa. Eguraldi onarekin terraza jendez betzen da, eta bazkaltzera bezero gehiago hurbiltzen dira.



El Viejo Roble taberna



### EL VIEJO ROBLE

Done Petri plaza 2 - Deustu - 944 76 43 96

Astelegunetan 8.30-23.00

Larunbatetan 08.30-00.00

Igandetan itxita





## Zelan egin?

Moldeko ogia txigortzea gomendatzen dute El Viejo Robleko Pedrok eta Elenak, horrela sandicha askoz goxoagoa delako. Mahonesa ugari igurtzi ogian eta erantsi tomate xerra bat, letxuga orri batzuk, arrautza

egosi zati batzuk eta York urdaiaz-piko xerra pareta.

Lehengaiak zenbat eta kalitate hobea izan orduan eta goxoago izango da sandwicha. Egin berria bada hobea!

## OSAGIAK

*Moldeko ogia*

*Tomatea*

*Letxuga*

*Arrautza egosia*

*York urdaiazpikoa*

*Mahonesa*



## Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

Ramon y Cajal, 24  
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako  
frontoiaren atzean

**DEUSTUKO BATZOKIA  
1978 TIK**

C/ Holidoro de la Torre, 5. 48014 DEUSTO  
Tf: 94 405 06 58 BIZKAIA

Restaurante  
**Deustoarrak**



Tfnoa: 94 475 41 54  
Faxa: 94 475 88 02

Madariaga etorbidea, 9  
48014 Deustu

www.deustoarrak.com  
deustoarrak@terra.es



**el viejo roble**  
\* CORPORAÇÃO \*

*Pedro Carballo Suárez*

Plaza San Pedro, 2 • Teléfono: 94 476 43 96 • DEUSTO - BILBAO

Ramon y Cajal 23



**Deustuko  
Ramon y Cajal kalean  
girorik onena!**

**ZURE PINTXO  
ONENAK GUREKIN  
KONPARTITZEKO**



**AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN**



# kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



## JANIRE SOLDEVILLA OBRADORS

*Diseinatzailea*

### ZIRRARA HOTZA

Joy Batchelor, Marjolane Parot eta Bego Vicario garai eta herrialde desberdinetakoak diren arren, bi ezaugarrietan bat datoz, emakume eta aintzindariak dira animazioan.

Azken hiru asteetan, arlo honetan jarduten duten artisten obran sakontzeko aukera izan dugu Bilbon, Loraldia eta Animakomek (Nazioarteko Animazio Komunitatearen Bilboko Jaialdia) antolatutako ekitaldi paregabeetan. Marjolane Parotek, esaterako, animazio tradizionaleko film luzeko hainbat proiektuetan parte hartu du, Tim Burtonen *Frankenweenie*, Wes Andersonen *Isle of dogs* edota Claude Barrasen *Ma Vie De Courgette*-n, eta azken hau ikusteko aukera izan genuen Animakomen. Filmak zurtztasunak eragiten duen minera hurbiltzen gaitu haurren xalotasun eta umorearen bidez.

Hiruren artean bat aukeratu beharko banu, Bego Vicario nabarmenduko nuke. Zinemagile, animatzailea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da. Bere ibilbidean animazio teknika ugari landu eta ikus-entzunezkoen kode eta arauak irauli ditu. Gaur egun, Euskal Herriko animazio esperimentalaren aintzidaritzat jo dezakegu Vicario. Bere lanetan eguneroko gai gordinak jorratzen ditu eta Loraldia jaialdian bere film laburretako batzuk ikusteko aukera izan genuen: *Geroztik ere*, *Zureganako grina*, *Pregunta por mí*, *Haragia*, *Jane*, *Areka* eta *Beti bezperako koplak*. Azken hau oso berezia izan zen. EHUko ikasle eta ikasle ohiekin batera egindako talde-lana da. Partaiden artean Zaloa Ipiña eta Irantzu Yaldebere deustuarrak daude. Maialen Lujanbiok Agate Deunaren harira botatako koplek eta horietan oinarritutako animazioek, salaketa zuzen bat egiten dute. "Aurrera goaz dena aldatzen da, denbora pasa heinean. Dena aldatzen da aldatzen ez den oinarri baten gainean." Filmak zirrara hotza eragin zigen.



## GERIZETI ZUBIAURRE

*Elorri bertso-eskolako kidea*

### KEXATZEA DUT HELBURU

Aspalditik nun nik hau buruan arteak balio al du? sentimenduak, edertasuna... ezer ez dago seguru baina gaurkoa den panoramaz kexatzea dut helburu nire ustetan arteak dauka askatasuna sorburu

Isiltasuna gogoz ezarritz kartzelan zut sortzaileak halere hortxe mantendu dira mugituta adoreak beraz gaurkoan trinko diote bitan zatituz kateak artea beti erabili da irekitzeko atek



# Orue eskola

2018-2019 IKASTURTEA

LANBIDE HEZIKETA

**GIZARTERATZEA**  
Goi Mailako Zikloa

**ADMINISTRAZIOKO**  
**eta FINANTZETAKO**  
Goi Mailako Teknikari Zikloa

EMAN EZAZU IZENA! ¡RESERVA TU PLAZA!



POSTGRADO EN  
**psicomotricidad**  
**Psikomotrizitateko**  
GRADUONDOKOA

N.º de créditos:  
30 ECTS = 750 h

Kreditu kopurua:  
30 ECTS = 750 ordu

Título expedido por la IL3-Universidad de Barcelona  
IL3-Bartzelonako Unibertsitateak igorritako titulua



Institut de Formació Contínua-IL3  
UNIVERSITAT DE BARCELONA



Tel. 946 300 058 • [www.orueeskola.org](http://www.orueeskola.org)



**Bilbon**  
**euskaraz**



**Bilbao**





**Auto baten xaxis-a  
3D inprimagailu baten  
eraiki dugu.**

*Nerea Sanchez Echezarreta*

Errenteria. Prozesu Industrialetako  
Ekoteknologien Ingeniaritza, 3. maila



### GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

**ORONA IDEO** • MAIATZAK 5

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ARRASATE** • MAIATZAK 26\*

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**GOIERRI** • MAIATZAK 26\*

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

### HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

**ESKORIATZA** • MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

**ARETXABALETA** • MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

### ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

**OÑATI** • APIRILAK 28

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**BILBAO** • MAIATZAK 5

LARUNBATA, 11:00 / Areto Nagusia

**BIDASOA** • MAIATZAK 17

OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

### GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA Basque Culinary Center

**DONOSTIA** • MAIATZAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO  
ZARPIA  
JAKINARAZI!



902 110 436  
[www.mondragon.edu/prest](http://www.mondragon.edu/prest)

\* Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei zuzendutako ate irekia